

# **Aikor!**

*txorierriko aldizkaria*

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA

***“Langileen artean  
afiliazio kultura  
lortu ezean,  
errebindikazioek  
indarra galtzen  
dute”***

**JOSE ELORRIETA**

**ELA- ko idazkari nagusia**

# DERIOKO JAIK GORA SAN ISIDRO!!!

## ETORRI ETA PARTE HARTU GURE JAI GIROAN

### JAIK EUSKERAZ BIZI!!!



AYUNTAMIENTO  
DE DERIO  
DERIO'KO UDALA

## Bar TRIPPY

### ZURE GIRORIK ONENA

Gura baduzu ondo pasatu, musika ona entzun  
eta futbollean jokatu, etorri zaituz Trippyra, Deriora

Behoko Kalea Bajio  
DERIO


  
CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA

Euskal Herria, 1  
Telefonoa 944 543 682  
Faxa 944 511 612  
48160 Derio / Bizkaia

BANCO  
 Guipuzcoano

Lehenengo Ierroan

GANCUREN KALEA, 1 - TELFNO.: 94 454 40 28 - FAXA: 94 454 41 89  
48160 DERIO  
e-mail: derio@bg.bancogui.es

  
Jorge Cristobal  
BERDIGUAIN - TEKNIKARIA

Txorierrri Etorbidea, 29  
Bordika - Bizkaia

600 648 483  
arkotxo@euskalnet.net

Carnicería  
Charcutería  
**IMAZ**

MUNGIALDE ETORBIDEA 2  
TEL.FONO: 94 454 10 75

DERIO

Eskemik asko  
etortzeagailik



electricidad derio elektrizitatea

Motore bobinaketa • Koadro elektrikoak • Instalazioak • Mantentzea

Aizkorri Kalea, 1 - Telf. / Fax: 94 454 31 48 - 48160 DERIO (Bizkaia)

## KONEKTA ZAITEZ?

Propaganda ofizialak komunikabideetan saltzen digun irudian Txorierrir irreal bat ageri zaigu, alegia, euskal Silicon Valley bat, etorkizunaren erronkei –informazioaren gizartearen erronkei– heltzeko gaitasuna ba omen duena, ondo hornituta nazioarteko aireportuarekin, korridorearekin, Bilborako bide berriekin eta parke teknologikoarekin. Baina irudi horren bestaldean, geure herrietako agintariak (geure udalen eta mankomunitatearen arduradunek) Komunikazioaren Aroaren historiaurretik irten gabe segitzen dute.

Euskal Herriko beste udalerrir batzuetan gertatzen denaz bestera, Txorierririko udal bakar batek ere ez dauka web-orri bat,

baliabide urrikoa izanda ere, herritarroi aukera emango digunik, Internet bidez, udal jarduerari eta proiektuari buruzko informazioa eskuratzeko, geure zergen ordainketa kudeatzeko, agiri edo inprimaki ofizialak bidali eta jasotzeko, edota udal erakundeen eta haien administratuen artean ohikoak diren hartu-emanak bideratzeko.

Txorierririko udal agintariak gaur egun hain garrantzi handikoak diren gai hauetan duten interes eskasa izango da, ziurrenik, Loiu eta Larrabetzun Interneten ADSL eskaintzen duen abiada handian sartzea eragozten duena, nahiz eta Zamudioko Parke Teknologikotik eta bertan kokatutako Sarenet, Euskaltel eta Interneten eta

teknologia berrien arloko beste enpresa puntarengo batzuetatik hain hurre egon. Antza denez, herri hauetako telefoniasareko zentralitak zaharkituta egon arren, Telefónicaren planen artean ez da aurreikusten berriekin ordezkatzeko, ez behintzat gure ordezkari politikoei besoak batuta segitzen duten bitartean. Beharrezkoa da, beraz, jarduketaren plan bat aurrera eramatea, Txorierrir eta bertako herritarrek artez eta ate nagusitik sar daitezkeen informazioaren gizartearen.

*Testua: Iñaki Berazategi. Kazetaria*



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierririko Euskara Elkartearen Federazioa (Lagatu, Zorritzetan, Arrekikili)  
Tf.: 94 452 34 47  
e-posta: totoan@topagunea.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Maite Aranburu

Erredakzio taldea: Patxi Gaztelumendi, Arantzazu Mendiguren, Fernando Larrondo, Jose Angel Mentxaka, Iñigo Hernani, Alberto Legarreta, Iñaki Berazategi, Mari Tere Onaindia.

Kolaboratzaileak: Amagoia Guezuraga, Iñaki Bilbao, Belen Gana, Oihana Astobieta, Fernando Olabarrieta, Puri Martinez, Derioko Nekazaritza Eskola (Mendikoi).

Zuzentzailea: Alberto Mtz. de la Cuadra  
Publizitate eta banaketa: Arantza Atxutegi  
Maketatzailea: Ainara Torres  
Inprimategia: GZ printek  
Ale kopurua: 4.750  
Lege gordailua: BI 137-02 ISBN 1578-9322



diruz lagundutako aldizkaria

## ZER

## NON

-Eritxia.....	3
-Laburrak eta albisteak.....	4
-Erreportajea	
Jose Elorrieta,	
ELA-ko idazkari nagusia.....	10
-Zer deritzozu.....	13
-Bizkargi, burruka galduen mendia.....	14
-Udal kirokegiak.....	16
-Baserri mundua.....	18
-Zientzia eta Teknologia.....	19
-Lezama Gailur mendi taldea.....	20
-Euskal Herriko Tikitixa Eguna.....	22
-Sukaldaritza.....	24
-Denbora pasa.....	25
-Agenda.....	26

## TXORIERRIKO I. TXAKOLIN EGUNA LARRABETZUN

Apirilaren 14an, azokea egin zan Larrabetzun Txorierriko I. Txakolin Eguna ospatzeko. Antolatzaileak 40 erakusmahai atondu zituen eta bertan txakolin barria eta beste euskal produktu batzuk probatzeko aukerea egon zan. Ganera, gaztaia, ortuko gauzak, odolosteak edo ogia be ipini ziran salgai. Beste alde bate-tik, Larrabetzuko Udalak ardua dastatzeko ikastaroa antolatu eban herritarrentzat. Orain dala gitxi barriztatutako Angulegi jau-regian Bizkaiko txakolinaren ezaugarrirei eta historiari buruzko era-kusketea izan da.



## ZGA-KOEK JAI EGUN ARRA-KASTATSUA IZAN ZUTEN VII. URTEURRENEAN

Nahiz eta eguraldiak ez zuen asko lagundu, Zamudioko Gazte Asanbladakoak pozik azaldu ziran, apirilaren 13an VII. urteurrena ospatzeko antolatutako jai egunari jendeak eman zion erantzuna ikusita. Egitarau estua izan zuten goizeko 11etan txupina jaurti eta txalapartaren doinuetara jaiari hasiera eman ziotenetik. Bertoko taldeko trikitilariak eta zarpantzarrak herri guztitik zabaldu zuten deia, eta gero pilota partiduak izan ziran.

Eskoletan egin zen orain arteko bazkaririk jendetsuena. Aurretik triki-bertso-poteoa izan bazen, bazkalostean bertso trama polita izan zen. Arratsaldean, gazte olinpiadak, Gilkitxaro taldearen "Trokaolatarrak" lana eta, Markinako perkusio taldeak animatuta, gazte aldarrikapenak eta gaztetxearen eskakizuna izan ziren nagusi kalejiran. Eguna bukatzeko, Amimishock, Ken7 eta Urgabe taldeek jarri zuten musika.

Antolatzaileen esanetan, apustu handia izan zen aurtengoa, lan eta diru aldetik. Emaiza ikusita, merezi izan duela diote, jende aldetik ondo, giroa ezin hobea eta diruz, tira... beraz aurrera jarraitzeko moduan. Zamudioko plazan momentu honetan Ken7 talde puntakoak Xabier Leteren hitzekin moldatu duen "Izarren hautsa" kantan esaten den moduan "... atsedetik hartu gabe / lana eginaz goaz aurrera / kate honetan denok batera / gogorki loturik gaude."

## KOMUNIKAZIO POSITIBOA ETA AUTOESTIMAREN GARAPENA LANTZEKO IKASTAROAK

Txorierriko Mankomunitateak antolatuta eta Begoña Gómez Rojok gidatuta, ikastaro batzuk emon dira Sondikan eta Zamudion.

Begoña Gómez Rojo, psikoperapeuta, komunikazio eta auto-estiman aditua dana, beste hainbat lanen artean honetan murgildu da Txorierrin. Ikastaro hauek hamar egunetan zehar ematen direz, astean egun baten. Helburuak asko direz baina printzipale-na, gaur egun bizi garen inkomunikazio gizarte batetik komunika-zio positibo batera heltzea izango zan, bakoitzaren baliabideak garatuz, noski.

Beste helburuen artean ikastaro hauetan garatzen da, bakoitzak dekoguzen baliabideak ezagutzea eta haunditzea, gure artean

hobeto komunikatzeko; gure autoestima-sistemak erabiltzea garatzen dogun bitartean; egunean zehar bizi doguzen esperientzia txarretatik urruntzea; bizipen positibo gehiago eukitzea edo behintzat gure esku ez badau saiatzeari behintzat; lasaitzeko teknikak erabiltzea...Eta gaur egun ahaztuta dekogun gauza oso garrantzitsu bat erabiltzea: IRRIBARREA.

Hauak dira orohar garatzen direzen gaiak beste gai askoren artean. Horretarako Begoña Gómezek metodologia ezberdinak erabiltzen deuz. Ariketa praktikoak egiten direz, "ikasleen" artean berba egiteko, bakoitzaren esperientziak azaleraziz.

Testua : Arantzazu Mendiguren

# COPISTERÍAS PROPLANOS

- FOTOCOPIAS B/N Y COLOR
- COPIAS DE PLANOS GRAN FORMATO
- REDUCCIONES Y AMPLIACIONES DE PLANOS
- PLOTTEADO Y ESCANEADO DE PLANOS
- ENCUADERNACIONES Y PLASTIFICACIONES
- IMPRINTA RÁPIDA (TARJETAS DE VISITA, FACTURAS,...)
- PAPELERÍA INDUSTRIAL: COPIADORA, PLOTTER, IMPRESORA, A3, A4
- CONSUMIBLES DE OFICINA, CARTUCHOS IMPRESORAS - FAX
- SERVICIO DE FAX, INTERNET Y AUTOCAD E INFORMÁTICA

**SERVICIO GRATUITO DIARIO A EMPRESAS DE RECOGIDA Y ENTREGA.**

**RAPIDEZ Y SERVICIO AL MEJOR PRECIO**



**URDULIZ**  
Edificio Mecánico de la Peña  
TEL. 94.676.91.15

**URDULIZ ALMACEN**  
Igeitzara, 6 1ª Planta D  
TEL. 94.430.40.18

**SONDIKA**  
ERREMENTERI, 20 LOCAL  
TEL. 94.453.87.81

**Email: Proplanos@Sarenet.es**  
**Web: Proplanos.euskalnet.net**

# DERIOKO SAN ISIDRO JAIK DIRALA ETA...

Zelan pasetan diran egunak! Ze arin! Eta hilabeteak be! Duda barik. Konturatu barik heldu gara maiatzera, eta loreen hilea dan honetan, hareekaz batera, bajatorkuz San Isidro Jaiak. Urtero lez, herriko baztar guztiak aztoratuko dabezan joku, dantza, algara eta kantaldien egitarauan azkenengo ikutuak emoten dabilz jai batzordekoak. Guztion partehartzea lortu guran prestatutako jai batzuk dira. Egia esateko, jai batzordeak eta herriko kultur taldeak alkarregaz egindako lanetik atara dan emaitza ezin hobea, herritarren jai-gosea asetzeko ia danetik daukana.

Odol Argia odol-emoleen alkatetako batek irakurritako pregoiak eta konpartsen jaitsiereak emongo deusie hasikerea aurtongo jai.

Maiatzaren 10etik 15era batzen dira ekitaldi gehienak: maria-chiak Herriko plazan, gau-dantzak Urgabe eta Lisker taldeakaz, umeentzako jolas parkea, briska eta tortilla txapelketak eta idi probak, besteak beste.

Urtero egiten dan moduan, aurten be Txoria kultur alkarteak antolatutako Elikagai eta Artisautza Azokea eta Untza mendi taldeak prestatutako Ibilaldi Neurtua egingo dira. Biak, maiatzaren 12an, domekaz, herriko plazan.

Baina ez pentsatu jaiak 15ean amaitzen diranik, ez horixe. Derioztarrak, Bilbotik datozen haizeak jota edo, 26rarte daukiez



prestatuta hainbat ekitaldi, Ipar-Alde abesbatzaren kontzertua 17an, Sutondoan etxeoandre taldearen antzerki-saioa 18an eta Nazioarteko Xake Txapelketa 26an, beste askoren artean.

Beraz, badakizue, maiatzean ez dago etxean lotzerik.

Non? Derion

Noiz? Ia maiatz osoan

Zergaitik? Batek daki. Esaera zaharrak dinoan lez,.....Derioko plazan.....

*Testua: Fernando Larrondo*

## San Isidro Jaiak, Egitaraua

### Maiatzak 10.

18:00etan. "La Sirenita" umeentzako ikuskizuna, Bihar taldearen eskutik. Fanfariaren jeitsiera eta Konpartsen lehiaketa.

23:30etan, "Los Charros" mariachiak, Udaletxeko Plazan.

01:00etan, Berbena, Urgabe taldearen eskutik, Nagusien Etxe aurrean.

11:30-14:00, umeentzako parke tematikoa, Udaletxeko Plazan. Eguerdian, herri bazkaria.

### Maiatzak 11.

19:30etan, dantza erakusketa, Lainomendi dantza taldearen eskutik, Udaletxeko plazan.

01:00etan, berbena, Lisker taldearen eskutik, Nagusien Etxearen aurrean.

### Maiatzak 12.

11:00-14:30, elikadura eta artisautza azoka, Txoria Kultur elkartearen eskutik, Azoka Txikian.

20:00etan, Camp berbena, Udaletxeko plazan.

### Maiatzak 15.

19:30etan, Idi probak, Udaletxeko plazan.

20:45etan, berbena, Indarra taldeagaz, Udaletxeko plazan.

### Maiatzak 17.

19:30etan, Udaberriko kontzertua Ipar Alde Koroarekin, kirol degian.

### Maiatzak 18.

17:30etan, aeromodelismo erakusketa, Seminario osteko pistan.

19:30etan, "Romance de ciegos" antzezlan, Sutondoan elkar tearen eskutik, Kiroldegian.

### Maiatzak 19.

18:30etan, Camp berbena, Udaletxeko plazan.

### Maiatzak 22.

19:30, Toti Martinez de Lezearen hitzaldia, liburutegian

### Maiatzak 26.

10:00-14:00, 16:00-19:00. Nazioarteko Xake Opena. Xake Taldea Kiroldegian.

**Inmobiliaria  
ETORKI**

Hortiko Plaza, 1 Lehen  
Tel. 94 454 50 53  
Móvil: 607 52 35 53

40160 DERIO

**CAFETERIA  
IAZI**

Eguneko menua eta  
Menu berezia

JATA KALEA, 2 - Telefona 94 454 29 56 - DERIO (Bizkai)

## BAIONAKO GAZTEAK LARRABETZUN.

Baionako Bernat Etxepare lizeotik 18 neska gazte etorri ziren Larrabetzura apirilako lehen asteburuan. Bariku arrastien Larrabetzura heldu eta asteburu itzela izan zan Iparraldeko eta Larrabetzuko gazteentzat. 14 etxetan egon dira eta gau eta egunez ekitaldi piloan antolatu zan herrian.

Zapatuan Bilbora txangoa egin ostean, Zazpi Kaleak eta Bilboko auzoak ezagutu, Kukutza gaztetxean bazkaldu, metroan ibili eta arrastien barriri be Larrabetzura. Behin Larrabetzun pilota partiduak, herrikoak iparraldekoan kontra eta Amerika eta Bilbao garaile.

Afaltzeko orduan giro itzela herriko eskoletan eta ostean bertso afarie izan zan Sustrai Colina, Amets Arzallus, Fredi Paya eta Beñat Ugartetxea bertsolariekaz. Han hasitako giroak gero gaztetxean jarraitu zeuen. Hurrengo egunean Gaztelumendirako mendi ibilaldia egin zan, eguraldi ona

lagun. Buelta ederra egin ostean, Goikoelezalden izan zan bazkaria. Arrastien, barriz, agurren ostean Lapurdi eta Nafarroa Beheretik etorritako neskek, etxerako bidea hartu zeuren.



## BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETA 2002 BERTSO AFARIA LEZAMAN

Badator, badator... Bizkaiko Bertsolari Txapelketa.

Lehenengoa Gatakan jokatu ondoren (apirilaren 26an), bigarren kanporaketa Lezaman izango da "Arriaga" antzokiko finalera bidean. Kanporaketa bi honeetako sei bertsolari onenek jokatuko dabe, gero, "Ipar Uribeko" bertsolari onenarentzako txapela. Hortik, eskualdeko txapelkunak izango dau Bizkaiko finalerako txartela. Hauxe da, beraz, gurean egingo dan kanporaketaren egitaraua:

LEZAMAN: bertso afaria Goitioitzako eskoletan, maiatzaren 3a, barikua, gaueko 21etan. Afarirako txartelak (15 aldera):

Lezaman ("Lejarrene" jatetxea, "Frontoiko" taberna eta "Oxangoiti"), Algorta eta Larrabetzuko "Bertso eskoletan", Mungia (Asier: 656735615 tel.).

BERTSOLARIAK: Alberto de Abajo ("Zoro"), Asier Legarreta ("Burusoitxo"), Etxahun Lekue, Galder Bilbao ("Txapi"), Iker Gangoiti, Miren Ibarluzea, Orzi Garitano, Unai Angulo.


EPAILE TALDEA: Josu Arroyo, Pello Unzurrunzaga, Jurgi Fuentes eta Patxi Gezuraga.

## IPAR URIBE TXAPELDUN BBK BERTSO TXAPELKETAN

Aurreko Aikor! aldizkariaren Ipar Uribeko taldea BBK txapelketako finalera heldu zala aitatu gendun, eta ez hori bakarrik, Ipar Uribe irabazi be egin zeuen Busturialdean kontra Bilboko Kafe Antzokian jokatutako finala. Txorierrri, Mungia eta Uribe Kostako sei bertsolari aritu ziren finalean, hiru gaztetxoeren taldean eta

beste hiru nagusietan. Nagusitu egin ziren gureak eta saioaren garaipena ekarri zeuren gurera.

Ospatzeko, Etxahun Lekuek Zamudioko bertso afarian kantatu zeuen Unai Iturriaga eta Igor Elortzagaz batera.



## BENITO LERTXUNDI ZAMUDION, LAGATZUREN EUSKAL ASTEAN

Lagatzu Zamudioko Euskera Alkarteak, Zamudioko Udalaren babesagaz, III. Euskal Astea antolatu dau maiatzaren 22tik 27ra bitartean. Benito Lertxundik maiatzaren 25ean, zapatuz, gaueko 10etan eskeiniko dauen emanaldia izango da ekitaldi nagusia, baina egitarau oparoa eta, kultur proposamen aldetik, aberatsa izango dogu beste egunetan be.

Maiatzaren 22an, hilabete honetako beste eguaztenetan egingo dan moduan, euskal kantuen ikastaroaren saio bat izango da Itxaso Arrietak zuzenduta. Maiatzaren 23an, eguenez, Asisko Urmenetak eta Kike Amunarrizek "Euskaraz dibertitzeko manerak" hitzaldi-showa egingo dabe.

Maiatzaren 24an, barikuz, Euskadi Gaztea Irrati saioko Josina Etxeberriak "disco-festa" montatuko dau. Zapatuan herriko umeek aukera izango dabe goizean Euskaltel-Euskadi taldeko txirrindulari batzuek egon eta bizikletaz paseotxu bat egiteko eta eguerdian Taupada antzerki taldearen "Mari Sorgin" lana ikusteko.

Domeka goizean, "Zamudio ezagutuz" mendi ibilaldiaren ostean herriko txakolinak dastatuko dira, bertsolariak lagunduta. Arratsaldean Jon Maia bertsolariak "Karidadeko Benta" taldeagaz bertso zahar eta barriak musikatuko ditu.

Astelehenean, aurreko urteetan egin dan moduan, oraindik guztiz zehaztu barik dagoen goi mailako mahai-inguru bategaz emongo jako amaiera aurtengo Euskal Asteari.

## HASI DA TXORIERRIKO PILOTA ESKOLEN ARTEKO TXAPELKETA

Foru Aldundiak antolatzen dauen Eskola Arteko Kirola azketan da, eta Txorierriko bikote batzuk aurrera jarraitzen daben arren, apirilaren 13an, Larrabetzu, Lezama eta Zamudioko pilota eskolen arteko lagunarteko txapelketari hasiera emon jakon.

Ume, umetxo eta gaztetxo kategorietako partiduak izango dira hiru herrietako frontoietan zapatu arrastietan. Hiru herrietako neska-mutilen arteko harremana sendotu eta beste txapelketetan parte hartu ez dabenei edo kanpo gelditu direnei kurtsoa amaitu arte olgetan jarraitzeko aukerea emotea da txapelketa honen asmoa. Finalak ekainaren 23an, domekaz, jokatuko dira.



## DERIOKO VII. NEKAZARITZA AZOKA

Maiatzaren 12an, domekaz, azokaren beste edizio bat egingo da Derion. Antolatzailea Txoria kultur elkarte da eta Derioko Udalaren diru-laguntza izan dute.

Antolatzaileen helburuak, labur-labur esanda, hauexek dira:

- Txakolinaren promozioa egitea. Azokaren izarra txakolina da, duda barik. Txorierriko ekoizleak bultzatu gura dira. Aurten egongo diren 6 postuak bertokoak izango dira, denak Bizkaiko txakolina jatorri-izendapenekoak. Ohiturari jarraituz, diru truke (5 euro) kopa erosi (aurten dotoreagoa) eta txakolina dastatu ahal izango da.

- Bizkaiko baserrietako produktuak ezagutaraztea. Ia postu guztiak (40 inguru) Bizkaiko ekoizleek beteko dituzte. Salbuespenak pate arloan izango dira.

- Herriko eta inguruko artisauei leiho bat zabaltzea: zeramika, otzaragintza, pintura....

Aurtengo ediziorako nobedadeen artean ondorengoak aipa daitezke:

- Loitik etorriko den Angel Camposen hegaztien erakusketa ikusgarria.

- "Emu" haragiaren dastatzea.

- Pottokak, umeak ondo pasatzeko.

- Ferratze erakustaldia.

Beraz, Derion badago domeka goiz atsegina pasatzeko era.

Testua: Jose Angel Mentxaka

**Kudeaketarako Sozietatea**  
**Biziklitzeko Zentro Aurreratua**

**SOGECAR**

**Tratamendu lerroak**

- Erabilitako olioak
- Agortutako taladrinak
- Disolbatzalleak
- Automozio

**hondakinen kudeaketa osoa**

Torrelarragoiti Ind. z/g 48170 Zamudio  
Telefonoa: 944 977 177 - Faxe:944 522 619

**Jesus Enrique Lopez Hidalgo**  
Odontologo

**Dr. D. Manuel Serra Cabrera**  
Ortodonzia

**ZAINDUZ**  
BOBIZ KLINIKA

Reserva de la oficina: 944 977 177  
E-mail: zainduz@zainduz.com  
Tel: 944 977 177  
40100 ZAMUDIO (Bizkaia)

# PIERCING ZALETASUNA TXORIERRIN

Piercingak eta tatuajeak ez dira gaur egungo modak bakarrik. Antzinakoak dira, betidanik ezagutu izan dira. Ezagunak dira, esaterako, Polinesiako tatuaje artistikoak eta Marco Pololoren garaian tatuajearen arabera neurtzen zela gizakiarenganako begirunea. Egipton, Grezian eta Erromatarren garaian ere hainbat arrazoigatik tatuatzeko ziren. Ipar Amerikan ere errito sinbolikoa zen. Geroago, XIX. mendean tatuajeak profesionalizatu egin ziren. Gaur egun, indar handiagoa hartzen hasi da kultura alternatibo baten sorrerarekin.

Piercinga edo zintzilikarioa eramatea ere antzinako ohitura da, gaur egun moda-modan dagoena. 70/80eko hamarkadetan rocker eta heavy metal jarraitzaileak izan ziren indarra eman ziotenak eta gero eta jarraitzaile gehiago daude. Egun negozio bihurtu denez, hainbeste denda espezializatu daude zintzilikarioak ipintzeko. Garai batean belarritakoak edo arrakadak bakarrik izan dira zintzilikario erabilienak, baina jada edozein leku, kopuru eta forma ezberdin erabiltzen dira. Politak ala motzak eta itxurabakoak diren edota asko, gutxi ala batere ez den erabili behar, gustuen eta pentsamoldeen arabera izango da. Iritziak jasotzeko, inkesta txiki bat prestatu dugu:

- 1.- Gustatzen zaizkizu piercing-tatuajeak ?
- 2.- Zergatik ipini dituzu piercingak? Arazorik eman dizu?
- 3.- Badakizu nondik datorren ohitura hori?

## Iker Landeta

1.-Piercingak jarri ditut gustukoa dudan irudi bat daukatelako. Baita norberaren pertsonalitatearekin doalako ere. Moda bat dela diote eta horrek ere eragin ikaragarriak sorrazten dizkizu.

2.- Printzipioz nik ez dut arazorik, baina komentatu beharrean nago, arazo larriak eman ahal dituen zulaketak direla piercingak. Zure gorputzean egiten dituzun zuloak ondo zaintzen badituzu ez dago inolako arazorik. Ondo garbitu behar dira piercing guztiak.

3.-Ohitura, berez, EEBBtik dator, baina aipatu behar dugu Afrikan kontinentean eta bertan bizi diren tribuak betidanik zulatu izan dituztela euren gorputzak. Hau kontutan izan behar dugu, baina orain dela hogei bat urte amerikarrek jarri zuten modan.



## Joana Lara

1.-Txikitatik tatuajeak egiteko eta piercinga ipintzeko gogoia izan dut

2.-Tatuajeek ez dute arazorik ematen, kolorea ondo mantentzeko bakarrik zaindu behar dituzu. Piercingak, ordea, zuloa ondo sendatu arte ondo garbitu behar duzu.

3.-Betidanik ezagutu da antzinako zenbait kultura ezberdinetan egiten zituztela eta esanahi desberdinak zeuzkatela.

## Estibalitz Jauregi eta Argiñe Zubieta

1.- Ez zaizkigu batere gustatzen, ez bata ez bestea.

3.- Agian Egiptotik datorren ohiturak dira.

## Agurtzane Bernaola

1.-Gustatzen zaizkit piercingak zein tatuajeak . Hala ere, piercinga ez nuke edozein lekutan ipiniko. Gainera, nik ez dut ipini arriskutsuak direlako.

3.-Ez dakit nondik datorren ohitura hori.

CENTRO MASAJE

**LASAI**

Terapiak:

- Ultrasonido (Ultrasonido)
- Masajecorreo
- Osoipain
- Masaje
- Lantzetako masajeak

Clínica especializada en:

- Cuidado de manos (Acondiciona)
- Espaldas de la zona
- Clases deportivas
- Pedicura

C/ Solabarri, 23 (Derio)  
9181 16021 (Bilbao)  
Tel: 94 431 3076  
Móvil: 65 74 24 07  
Fax: 94 431 3076  
Email: lasai@lasai.com

**KRIKETA**

~ Zuzendaritza ~

~ LARRABETZU ~

Tel: 99-4657135

COMIDAS - PIZZAS - SANDWICHES - PASTAS  
na. Barrio de San Francisco

**SUINOR COMPUTER S.L.**

Torrearragiti - Industrialdea-8 blokea-3.nabea-ZAMUDIO (Bizkaia)

**BARAKALDO INFORMATIKA**  
Miranda Etorbidea 3  
48902 BARAKALDO-BIZKAIA  
Tlfno./Faxa.: 94 4781643

**LEIOA INFORMATIKA**  
Iparragirre Etorbidea 56  
48040 LEIOA-BIZKAIA  
Tlfno.: 94 4804638  
Faxa.: 94 4807145

e-mail: rocco@arrakis.es

**Janix**

ORNAMENTAK - ORNAMENTAK

Gernikako Arbola Etorbidea, 2  
(sarrera Goiko Kaleetik)  
Tlfno.: 94 454 20 13  
48160 DERIO (Bizkaia)

**CARROCERIAS TXORIERRI**

**R-M**  
PINTURA

José Antonio Sanz

**TXAPA ETA LABE-PINTURA**

Vial sur C-15 - Navarri 1  
Bilbo/Fax: 94 432 27 03

48016 ZAMUDIO (Bizkaia)

**Vértigo**

GENERALISTAS EN EL  
Diseño y decoración

IKUSKIZUNEN ANTOLAKUNTZA ETA AHOLKULARITZA


Industria - Torrearragiti C.V. S.  
RATZO GOBERNADORE (BILBAO)  
C/ Solabarri, 23 - 48016 Zamudio (Bizkaia)  
Tel: 94 431 3076 - Fax: 94 431 3076

**Marta Bravo**

1.- Bai, pilo bat gustatzen zaizkit. Badaukat bat bekainean eta gustatuko litzaidake zilborrean ipintzea, baina amak ez dit uzten. Tatuaje txiki bat ipiniko dut bizkarrean. Lehen eduki nuen piercing bat beste bekainean, baina arazo bat eman zidan, alergia bat, nahiz eta piercinga titaniozkoa izan.

Nik higiene neurriak hartzen ditut. Esate baterako, piercinga ukitu baino lehen ondo garbitzen ditut eskuak, gero bere gunea suero fisiologikoarekin eta bateriaren aurkako jarioz garbitzen dut gauero hiru aldiz. Bestalde ezin da erabili kosmetikorik, lurri-rik edo alkoholik, eta, azkenik, C bitamina eta zinka hartzen dut zeren orbanentzat onak dira eta azala berritzatzeko ere bai. Bekaina sendatzeko, gutxi gorabehera, hilabete bi behar izan dit.

Testua: Derioko AEK Euskaltegia (Txepetxa)



## MAIATZAREN 17, 18 ETA 19-AN, ZAMUDIOKO PAZKO JAIK

Begi aurrean dogu uda, eta, horren adierazle, herrietako jaiak hasten jakuzela. Zamudion sarritan entzun izan ohi dogu beti jaiak dirala eta, izan be, herriko jaien lehenengo txupina Pazko jaietan izaten da eta San Martinen amaieran hileta.

Sukalki eguna da, aurtengo nobedaderik aipagarriena eta holan ikusi dabe azken urteetan nahiko amatauta egoan jai batzordean parte hartu daben herriko alkarteak, batez be, herri-tarrak gauzak ikusteaz gain, jai giroan, koادرiletan...parte hartze-ko aukera izango dabelako. Bestelakoak be, badagoz eta hona hemen egitaraua:

**Maiatzak 17, barikua**

18,30- Txupina, pregoia eta kalejira  
19,00- HIRU-BAT Dantza Taldea  
23,00- Gau dantza.URGABE

**Maiatzak 18, zapatua**

10,00- Kalejira  
10,00- Sukalki Txapelketa  
- Umeen jokoak  
12,00- Triki-bertso-poteoa  
16,00- Antzerkia  
17,30- Jota txapelketa  
18,00- Gorritiren ponyak  
20,30- Abesbatzak  
23,30- Kontzertua,TTAK  
01,00- Gau dantza, ENE BADA

**Maiatzak 19, domeka**

10,00- Kalejira  
10,30- Umeen pilota partiduak  
11,30- Meza nagusia  
11,30- Nagusien pilota partiduak  
17,00- Marrazki Txapelketa  
17,00- Karta Txapelketa  
19,30- GOLDEN APPLE QUARTET

Bar - Restaurante

*Balgerri*

1. gailurko manua  
ilama bereziak  
Piztasun berriak

Poll. Industrial Terrasaplai, Pasada 8 - Nave 5 - 48170 ZAMUDIO  
Tel. 944 323 853 • Fax 944 323 376

GRUPO "ACOFISA" ASESORES  
KONTABLE-FISKAL-LAN-JURIDIKOA

Luis Fernando Aguirre

Makoa Hadaurren 1 - Ibaeta      Nervión, 3 - 8º - 43pl. 15-7  
Tfnos.: 94 453 33 28      Tfnos.: 94 423 42 42  
Faxa: 94 453 50      Faxa: 94 423 61 70  
48150 NERJUNKA - Huelva      48101 HII HALL

hotela  
jate txeka  
aretxarte

Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200  
48170 ZAMUDIO - (BI7KAIA)  
Telefonoa: 94 403 69 00  
faxa: 94 403 69 01  
e-mail: hotel@aretxarte.com  
e-mail: reservas@aretxarte.com  
www.aretxarte.com

HOTELA  
JATE TXEKA  
BATEK + BATEK

Olibar C/Argosentratza  
Arreaga azul. 62  
48170 ZAMUDIO - (BI7KAIA)  
Telefonoa: 94 403 69 00  
Faxa: 94 403 69 01  
E-mail: hotel\_aretxarte@piztasun.es



# JOSE ELORRIETA

## ELA sindikatuko idazkari nagusia

Maiatzaren lehena Langileen Nazioarteko Eguna izanik, Loiu jaiotako sindikalista ezagunarengana jo dugu, geure eskualdeko egoera ekonomiko-sozialari buruz berba egiteko. Jose Elorrieta 26 urte gaz murgildu zen sindikalismoaren mundu korapilatsuan. Hamahiru urtez ELA sindikatuko prentsa arduraduna izan zen eta 1988az geroztik ELAko idazkari nagusia da. Hogeita lau urte gaz Bilbo aldera joan zen, baina oraindik ondo gogoratzen ditu Loiu bizi izandako gaztaroko urte haiek...

### **Loiutik joan zinela hainbeste denbora pasa ondoren, zelako ezberdintasunak ikusten dituzu lehengo eta oraingo bizi-moduaren artean?**

Baserri baten jaioa naiz, eta garai hartan familia gutxi ziren bizibidea nekazaritzan bakarrik ateratzen zutenak. Gazte asko Asua aldeko fabriketara joaten zen lan egitera. Esate baterako, auzoko bizilagunen kasuan, gaur egun ez dut uste inor dagoenik baserri bakarrak bizi denik, nire adinekoen artean behin behin. Beste alde batetik, hirigintzak aurrerakada handia egin du eta etxebizitza asko eraiki dira Loiu aldean. Hala ere, herriko bizitza lotuta geratu da. Esan daiteke askok etxeak lo egiteko baino ez dituztela erabiltzen.

### **Hainbeste industria Txorierrira etorri izanak mesede ala kalte egiten dio eskualdeari?**

Industria hori Txorierrira etorri izanaren zergatia erabat logistikoa dela uste dut. Bilbon edo beste herrialdeetan egon diren enpresak hona datoz, hemen eurentzako leku paregabea dagoelako. Maila txikiago baten, ez dakit diru aldetik aldaketa horiek

zelako eragina izan duten. Pentsatzen dut enpresek udal eta erakundeei tasa edo zergak ordainduko dizkietela eta hori onuragarria izango dela udalentsat. Ondorio txarrak ere baditu, herriaren hazkunderari mugak ezartzen dizkiolako. Zamudioko Parke Teknologikoa da industrigintza berri horren adibiderik nabarmenena, nahiz eta, estruktura aldetik, polita eta zaindua izan.

*“Gaur egun Txorierrin duela 25 urte baino aukera gehiago dago ondo eta eroso bizitzeko”*

Aldaketek ondorio onak eta txarrak dakartzate. Esaterako, gaurko baserri asko eraikin berriak edo eraberrituak dira, ezin dira aurrekoekin konparatu. Askoz ere abegitsu eta erosoagoak dira. Kanpoaldea txukunagoa dute. Gure etxean ez geneukan urik, ezta kalefakziorik ere... Ez zegoen erosotasun handirik!

Beraz, lehengo bizimodua gaurkoa baino hobea dela esatea ez da guztiz egia. Ez dut uste gaur egungo gazte bat ni bizi nintzen

baserrian 24 urte bete arte bizitzeko gai izango litzatekeenik. Zentzu horretan, aldaketak positiboak izan dira. Gainera, gaur egun Txorierrin duela 25 urte baino aukera gehiago dago ondo eta eroso bizitzeko. Orokorrean, esan daiteke gauzek hobera egin dutela.

### **Hainbat industria daukan herrialde honetan sindikatu baten afiliatuta egoitea garrantzitsua dela uste duzu?**

Langileen artean afiliazio kultura lortu ezean, errebindikazioek indarra galtzen dute. Euskal Herrian, zorionez, afiliazio maila nahiko altua daukagu. Gainera, igotzeko joera du. Uste dut euskaldunen %25 afiliatuta dagoela.

### **Jendeak ezagutzen ditu bere eskubideak?**

Horretan maila bi bereizi behar dira. Alde batetik, eskubideak ezagutzea dago, eta bestetik, eskubide horiek defendatzea posible dela frogatzea. Gazteen %77k lan ez-finkoa du, soldata eta segurtasun maila makalean dabil lanean. Gehienek jakin badakite lan finko bat izateko eskubidea daukatena, baina ez dakite zelan lortu eskubide horiek. Beraz, sindikatuen lana bikoitza da;



**Adituek diotenez, irailaren 11z geroztik enpresa asko ekonomiaren atzerakadaz baliatu da jendea kaleratzeko, Ericsson edo Gamesako kasuetan bezala. Zer irizti duzu ekonomiaren atzerakadaren eta kaleratzeen arteko loturari buruz?**

Orokorrean, hausnarketa hori oso interesgarria iruditzen zait. Enpresa askok, produkzio planta baten lana %10 jaisten bada, planta ixtea erabakitzen dute, edo produkzio zati hori beste enpresa bati saltzea, jendea kaleratzea... Ni gehien harritzen nauena da zein erraztasun handia duten enpresa askok horrelako erabakiak hartzeko. Horrelakorik ez gertatzeko beharrezkoa da enpresarien filosofia aldatzea. Enpresariak garrantzitsuena "giza kapitala" dela diote, baina ezinezkoa da hori egia izatea, bestela ez lituzkete langileak hain arin kaleratuko arazo txikien aurrean.

**Maiatzaren lehen Langileen Nazioareko Eguna da. Gauza asko falta da oraindik errebindikatzeko?**

Bai, lan asko daukagu oraindik egiteko, eta zentzu horretan, ELAren lehenasuna diskriminazio forma guztiei aurre egitea da. Adibidez, lan berdina eginda, kontratua edo soldata ezberdina izatea diskriminazioa da, eta gehie-



netan emakumeak eta gazteak izaten dira egoera horretan aurkitzen direnak. Era berean, gizartean egiten diren bereizkeriei aurre egitea garrantzitsua dela uste dut. Zaharrak eta emakumeak dira talderik diskriminatuenak eta egoera hori aldatzeko bideak landu behar dira. Enpresa eta gizarte mailan berdintasuna lortzea beharrezkoa da.

**Zelan ikusten duzu Txorierrri hemendik 20 urtera?**

Baikorra naiz. Argi dago gauza batzuk zaindu egin behar direla, esaterako, herrien hirigintza, baina hemendik 20 urtera Txorierrin bizitzea orain baino erosagoa izango dela pentsatu nahi dut. Bertakoek horretan egin behar dituzte ahaleginak. Denbora aurrera joan ahala, gauzak aldatuz doaz eta aldaketa horiei inolako beldurrik gabe aurre egin behar zaie. Kalitate aldetik, duela hogeitau urte baino hobeto bizi dira Txorierrikoak hemen, eta, ziurrenik, hemendik hogeitau urtera gaur egun baino erosotasun eta kalitate hobeagorekin biziko dira.

*"Estatistiken arabera, lan ez-finkoaren eta lan istripuen arteko harremana oso estua da, batez ere, eraikuntzan"*

Testua: Maite Aranburu

**Zerurena Jatetxea**

Errementeri Kalea, 22  
Tfno.: 94 453 57 54  
Fax: 94 453 58 31  
48150 SONDIKA (Bizkaia)

**EUSKAL ASTEA  
MAIATZA**

**22** 19,30 KANTA IKASTAROA 1. saioa  
**23** 20,00 KIKE AMUNARRIZ ETA ASISKO URMENETA  
"Euskeraz dibertitzeko manierak" Hitzaldi-Show  
**24** 21,00 JOSINA ETXEBARRIA. DISKO FESTA  
**25** 10,30 EUSKADI - EUSKALTELEko txirrindulariak  
12,30 TAUPADA ANTZERKI TALDEA "Mari Sorgin"  
22,00 BENITO LERTXUNDI. Kantaldia. Kiroldegian  
**26** 09,00 MENDI IBILALDIA "Zamudio ezagutu"  
13,00 HERRIKO TXAKOLINEN DASTAKETA  
BERTSOLARIAK - TRIKITILARIAK  
**27** 20,00 MAHAI INGURUA

**L  
A  
G  
A  
T  
Z  
U**

ZAMUDIOKO  
EUSKERA  
ALKATEA

**zamudion euskeraz?  
hoba ez!**

# USTE DUZU GARRANTZITSUA DELA SINDIKATU BATEN SARTUTA EGOTEA?



**Ricardo Garcia**

Ni sindikatu baten partaide naiz, baina egia esan behar bada, uste dut sindikatu guztiek ez dutela laguntzen errebindikazioak lortzen. Gainera, jendeak ez ditu bere eskubideak ezagutzen.



**Javier Meoyo**

Duela zenbait urte sindikatu baten partaide nintzen, baina askotan, langileen errebindikazioak eta sindikatuaren nahiak ez zetozen bat. Horretaz gain, ona litzateke jendea sindikatuetako kidea izatea.



**Mari Carmen Villaba**

Garrantzitsua da, batez ere, enpresetan arazoak sortuz gero, denen artean konpontzeko. Txarrena da jendeak ez duela bere eskubideak ezagutzeko ardurarik hartzen.



**Elisa Kosta**

Duela gutxi sartu nintzen sindikatu baten eta, beraz, ez dakit asko gai horri buruz, baina lagungarria dela uste dut. Nire esperientzian oinarrituz, askok ez dituzte euren eskubideak ezagutzen, eta, gainera, gutxi eskatzen dituzte.

**Josu Zabala**

Baietz uste dut. Lan munduan gero eta arazo gehiago dago, langileei asko eskatzen zaie, eta laguntzen duela uste dut. Gehienek ez dituzte euren eskubideak ezagutzen. Normalean, lantegian arazoren bat suertatzen zaizunean arduratzen zara sindikatu batengana jotzen.



**Belen Mellado**

Bai, batez ere, langileen eskubidea defendatzeko dagoen bidea dela uste dut. Normalean, gure eskubideen aurrean ezjakintasun handia dago.



**Diego Martin**

Eskubideak errebindikatzeko aukera bakarra sindikatu bateko partaide izatea dela uste dut. Gainera, gai honen inguruan ezjakintasun handia dago, zuzenean arazo bat izan ezean, gehienak ez dira gai horretaz arduratzen.



**GARAIOLTZA, S.A.**

PROMOZIOAK-ERAIKUNTZAK

**LEZAMA**

ETXEBIZITZAK, MERKATARITZA-LOKALAK ETA GARAJEAK

LEHEN MAILAKO ERAIKUNTZAK; LEHIATE HANDIAK;

ORDAINTZEKO ERRAZTASUN HANDIAK

**TF. : 94 455 50 19**

Garaioltza auzoa, 128 (behea)

Lezama (Bizkaia)

WASCOLAC SL  
 48170 Zamudio (Bizkaia)  
 94 452 23 20 faxoa




Diruzian behar den esneagaz egunean eguneko GAILLA gaztaren  
 ATUTXA San Jakobek eta kroleak  
 BANANETA DENDETARA, JATEXKETARA,  
 TABERNETARA ETA JATOKIETARA  
 Holakot eskal produktuen distribuzioa:  
 edozein modan eskalok, txerrikak, txerrikak, txerrikak, txerrikak, txerrikak

# Bizkargi

## Burruka galduen mendia



Bizkargi mendia, 1937ko maiatza

Testua: Patxi Gaztelumendi

Urtero moduen, aurten be Bizkargi eguna ospatuko da Morga, Muxika, Zornotza eta Larrabetzu batzen dituen mendi gailurrean. Urtero moduan, aurten oin dala 65 urte hildako gudari guztiak gogoratuak izango dira 564 metrotara.

Bataila odoltsuak izan ziran 1937koak... odoltsua izan baitzan espainiarrek egin eurien ofentsiba. Bizkargik esangura berezia eukan garai haretan. Bilbo zaintzeko Burdinezko gerriko berezian parte ziran Txorierrri inguruko herriak, Gaztelumenditik Fikara zein inguruko mendietara Burdinezko gerrikoa egoan prestatua... baina Araba aldetik sartutako faxistak gero eta gertuago euezala eta Bizkargi zaintzera joan zan euskal gudari asko. Bizkargi bazan ikurra zeozelan... eta hori defenditzera batu ziran hainbat batailoi.

Inguruan bonbardaketak ziran nagusi. Otxandio, Durango martxoan 31n, Gernika... Bizkargitik sartu ostean, faxisten asmoa Fika eta Gaztelumenditik Bilboraino sartzea izan zan. Gaztelumendin batez be ekainaren hasieran izan ziran liskarrik handienak... Bilbo galtzeko ezinbestekoa izan zana. Behin Goikoetxea Oriolen traizioaren ostean, mapan eskuan euskazala Frankoren aldekoak Bizkaiko hiriburuaren jabe egin ziran.

65 urte ospatzen dira guzti haretatik. Gure herriak ondiño be memoria historikoa galdu barik deko, eta Bizkargin urtero-urtero, euri zein aterri, ospatu egin da Bizkargi eguna, "atzo eta gaurko gudarien alde". Aurten be programa oparoa dau mendi puntan eta, betiko moduen be, Larrabetzuko urien. Inguruko herrietatik urtero moduen Bizkargirako mendi ibilaldi ugari egiten dira. Larrabetzun, Hori Bai gazte elkarteagaz batera jende asko joaten da uritik bertatik oinez. Beste askok, kotxez Goikoganera joan eta handik txango laburragoa egiten deu. Behin Bizkargira igonda, txalapatariak, trikitaliak, bertsolariak, meza, txosnak eta jai giroa topauko ditu doan guztiak. Larrabetzun barriz, manifestazioa eta izotz taldeagaz jaialdie egongo da plazan.

*"Bataila odoltsuak izan ziran  
1937koak... odoltsua izan baitzan  
espainiarrek egin eurien ofentsiba.  
Bizkargik esangura berezia eukan  
garai haretan"*

Era askotako pintxoak - Plater konbinatuak  
3 Erakundeak erakur  
Tortosa Kalea, 3  
(Bilbo ZAMUDIO (Bilbo)) Tel. 94 454 44 75

• Eguneko Menuak  
• Kuzalatuak  
• Olibeoa Errela  
• Kurru Zabala  
Calle Kalea, 1 Bijo - BILBO  
Tfno. 944 510 106

BERTOKO OKELA  
ETXKO PRODUKTUAK:  
Txoritxoak  
-Odolotxoak  
-I'ntoxoak  
-Mihia  
-Tripakiak  
-I'iper txakok  
-etabar.  
Urteola kalea, 4  
Tortosa... 94 454 30 48  
URTEOLA

# Salbatore Mitxelenak idatzi Joseba Tapiak kantatu doskuna

## Maritxo!

Salbatore Mitxelena, 1940

Irten adi leiora  
Maritxo, lenbaillen;  
Gudariak gudara  
Gudariak gudara  
bertan baitgoazten.

Lareun gudari, lareun  
abertzale lerdin  
mendira abiatzeko  
gertu ona emen:  
Españiko ikurriña  
Bizkargiren gallen  
etsaiak jarria, andi  
bear diagu ken.

Giputz oldartsuakin  
ez badegu kentzen,  
Joxe Mari bizirik  
ez den ikusiren...

Jantzi ezan jaieko  
soñeko ederren  
ta irten adi leiora,  
irten adi leiora,  
Maritxo, lenbaillen.

Españi ikurriñakin  
gurearen orpoz,  
lareun gudari aiek,  
lareun gudari aiek  
garaille badatoz.

-Lareunak bai?- Maritxok  
galdetzean du poz!  
-lareunak, bai enetxo,  
lareunak an datoz:  
biziak aurren, illak  
dakazkite ondoz:  
Joxe Mari ta bai  
bost...  
(Maritxo, non den  
poz!)

Zoaz eleizara ta  
Maritxo, otoi gogoz:  
Garaitu duten arren,  
garaitu duten arren,  
anitz gorputz datoz.

Joseba Tapiak disko ederra eskaini euskun neguan, "Agur Intxorta maite-1936-37 gudako kantuak". Disko horretan 1936ko gerrako kantuak ageri dire, orain arte ezagutu bakoak gehienak. Izan be, orain arte "Eusko Gudariak" baino ez da izan ezaguna gure artean. Oin, ordea, gerrako kantu asko, alaiak eta tristeak dekoguz entzungai geure kantutegian.

Horrek danan artean topau dogu Salbatore Mitxelenak idatziriko "Maritxo!" be. Salbatore Mitxelenak bere kuadernoan 1940an idatzirikoa. Kantu guzti honen bilatzailea, ordea, beste idazle bat izan da: Koldo Izagirre. Joseba Tapiagaz elkarlanean dabil aspaldion eta honeek kantuok danak batu ditriktilariarentzat.

Koldo Izagirrek esanda dakigu ganera, Salbatore Mitxelenak idatziriko kantu hau ez zala 1977 urterarte argitaratu. Ordurarte fraile frantziskotar honek idatziriko letra eta poema asko ta asko bere kuadernoetan gordeta egon ziren. Jakin editorialekoek, Arantzazuko EFA argitaletxean publikatu zituzean Mitxelenaren lanok, bi liburukitan "Idazlan guztiak" titulupean.

Salbatore Mitxelena Zarautzen jaio zan 1919an eta Suitzan hil 1965ean. Frantziskotar be Zarauzko komentuan egin zan, eta 1936an, gerra hasitakoan Nafarroako Erriberrira joan beharrean aurkitu zan. Han Francoren alde soldadu joan behar izana suertatu jakon. Gerra amaitutakoan barriro be Erriberrira bialdu eurien Mitxelena. Gero misiolari ibili zan leku askotan, eta azkenean Suitzan hil zan. Koldo Izagirrek Salbatore Mitxelenaren poesia batzen dauen XX. mendeko poesia kaieran hau diño Mitxelenan ganean: "1936ko gerrak markatu zuen gogorkien bere lana. Gerraondoko gure lehen idazlea da, baina are gehiago dugu gerra horren ondorio eta emaitza".

Gerrari buruz letragile anonimo askok idatzi zeuen, baita bertsolariak be, normala zan moduan. Lauaxeta, adibidez, "poematan despeditu zen fusilatu aurretik" -diño Koldo Izagirrek-, "Monzonek liburu oso bat idatzi zuen gudarien eginez, Iratzederrek Gernikaren suntsimenduaz moldatu zuen bere lehen poematarik bat... eta Salbatore Mitxelenaren obra guztia gerraren tragediak markatu zuen".



Francoren aldeko armada  
Larrabetzun

**DERIO FRUTADENDA**



Sollube, B  
Tfnoa: 605 77 12 62  
**DERIO**

**KIMA**



**Landarak**  
LANDARE APAINGARRIA

Goimela 28 - Tel. 91 055 51 00 - Fax: 91 055 61 77  
40146 LIZAMA (BIZKAYA)

Albaitaritze

**HENAR ORTUONDO**  
ALDAITARIA



Albaitaria Henar  
Tfnoa: 91 474 28 21  
AVILA (BIZKAYA)

**DERIO** LARRABETZUN 24 orduko.  
Tfnoa: 91 055 51 07 - Lizama, 40146



# DERIOko UDAL KIROLDEGIA

**Ordutegia:** Astelehenetik barikura, goizeko 10etatik gaueko 10,30etara

Zapatuetan, goizeko 10etatik arratsaldeko 8etara  
Domeka edo jaiegunetan, goizeko 10etatik ordu bietara  
Abuztuan, oporrak dirala eta, ITXITA egoten da.

## Abonua:

1.- DERIO eta ZAMUDION erroldatuak

-Urteko abonua familiarrak

(ezkontideak + 18 urtetik beherakoak)\* 123,21 euro

-Urteko abonua indibiduala (18tik gorakoentzat) 87,15 euro

-Urteko abonua indibiduala (18tik beherakoentzat) 60,10 euro

\*Seme-alaben kopuruaren eta lan egoeraren arabera, salneurri bereziak dagoz.

2.- Ez Erroldatuak

-Urteko abonua familiarrak

(ezkontideak + 18 urtetik beherakoak)\* 150,25 euro

-Urteko abonua indibiduala (18tik gorakoentzat) 105,18 euro

-Urteko abonua indibiduala (18tik beherakoentzat) 72,12 euro

\*Seme-alaben kopuruaren eta lan egoeraren arabera, salneurri bereziak dagoz.

## Abonua atarateko behar dan dokumentazinoa:

-Eskaera orria beteta

-Argazki bat

-Karnetaren kopia bat

-Ordainketaren ziurtagiria

(Ipar Kutxa: 3084-0015-71-6400033354)

-Abonua familiarra egin gura bada, Famili Liburuaren kopia behar da.

## Zeintzuk dira abonua daukienez bentajeak?

-Sarrera doan

-Prezio bereziak zerbitzu eta ikastaroetan

-Ikastaroetan parte hartzeko lehentasuna

-Squash, kirol pista, gimnasioa, sauna eta rokodromoa doan

-Istripu aseguruak.

## Instalazioak:

-Squash

(ordua, 2,85 euro

eta abonatuak doan)

-Sauna

(ordua, 2,40 euro

eta abonatuak doan)

-Kirola egiteko pista

(futbola, saskibaloia...)

-Frontoia\*

(ordua, 7,21 euro)

-Rokodromoa

(ordua, 4,21 euro

eta abonatuak doan)

\*Frontoia 2001. urtean eregi zan.  
Hau da orain arte egindako azkenengo instalazioa

## Eskaintako kirol zerbitzuak:

-Uger egitea barruko pizsinan

-Kirol pista

-Tenisa eta Padela

-Gimnasia

(helduentzat, gimjazz,

step, aerobic)

-Masajea

-Gihartzea

-Yoga


(2002 urteko

barrikuntza)

-Barruko dantzak

(2002 urteko barrikuntza)

**Tel.: 94.454.0159**  
**Sarrera: 3,01 euro (helduak)**  
**2,40 euro (18 urtetik beherakoak)**



**hormigones**

**de zamudio**

KALITATE BIKAINA, BEREHALAKO ERANTZUNA

- Hormigoi-kamiak ugariak eta modernoak
- Ezin hobeto kokatutako planta
- Obrarainoko garraio azkarra

Torrelerrogaiti ind., 7-9 • 48170 Zamudio - Bizkaia  
Tel.: 94 452 29 70 • Fax: 94 452 31 65  
E-mail: hormozamudio@jazzfree.com

**LIBRERIA SONDICA LIBURUDENDA**

ARTE IDERRAK ESKULANAK, E.A.

**JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN**

Fotokopiak, kuadernaketa, plastifikatuak,  
prentsa, aldizkariak, liburuak,  
puzpuzgintza eta eskulariak

Mikel Zarate, 2 - Tel. / Fax: 94 453 16 77  
48190 SONDIKA (Bizkaia)

**HARATEGIA**

**J. ELORRIAGA**

Elkeko berezitasuna: bertutea eta ikela

Iturriztasun, 7 biluzi • 94 455 89 41 LARRABETZU



# ORDENAGAILUEN BIRUSAK

Testua: Alberto Legarreta

Jende asko harritu egiten da, birus informatiko bat enpresa baten sisteman sartu eta hainbat milioi galazo deutsola entzuten dauenean: "Zelan izan leiteke holango gauzarik?", "Ordenagailua gaisotu egin da edo zer?", "Zer da birusa?", "Konekta Zaitetz kanpainearen bitartez ordenagailua erosi barri nago eta orain zer egin behar dot?"

Birusaren gai hau oso zabala da eta liburu asko idatzi leitekez haren ganean. Idatzi honen helburua honako hau baino ez da: birusa zer dan eta haren aurka zer egin behar dan azaltzea eta birusei buruz Interneten dagozen helbide interesgarri batzuen barri emotea.

## Zer da birusa?

Birusa programa informatiko bat da, beste programa haundiago batzuk erabiliz gehitu egiten dana eta sistema infektatzen dauena. Ezkutututa egoten da, eta agertzen danean, arazoak eta minak sortu leitekez sisteman. Birusa programa txiki bat da, baina beste programetan kopiatzen da, eta programa horreek erabiltzen direnean agertzen da birusa.

## Zelan zabaltzen dira?

Lehenengo birusa Kalifornian sortu zan, 1983an, Fred Cohen unibertsitateko ikasleak gai honi buruzko tesia egin ebanean.

Birusak programa piratetan edo copy-right-ik ez dauken programetan egoten dira ia beti. Programa originaletan ez da birusik egoten. Ez bada zabaltzen birusa daukan programea, ordenagailua ez da infektatuko.

Baina hau ez da guztiz egia. Azken bolada honetan sortu dira birus batzuk, programa batzuen akatsak erabiliz zabaltzen direnak. Hona hemen adibide bat: NIMDA sortu zanean, galera eta arazo asko euki zituen enpresa askok. Birus hau e-mail bidez zabaldu zan eta Outlook Express daukan bug (akats) bat erabili eban. Inork birus hori daukan e-mail-a jasoten badau, automatikoki zabaltzen da birusa. E-mail zerrendea ikusi eta infektatutako mezua zabaltzen dau, eta, ganera, sistema hondatuten dau. Birusa zabaltzen eta zabaltzen joan zan, enpresetan ordenagailu askoren sistema apurtu eta diru asko galazo eban.



**Ondoren aholku batzuk doaz, birusik ez hartzeko eta, hartuta eduki ezker, kalteak ahalik eta txikienak izateko zer egin behar dan jakiteko:**

- Segurtasun kopia edo backup-a eukitea, informaziorik galdu ezker, barriro eskuratzeko.
- Antibirusaren azkenengo bertsinoa eukitea eta memorian aktibo eukitea. Bat baino gehiago euki ezker, hainbat hobeto.
- Ez da sartu behar lizentzia bako programarik. Sartu beharra euki ezker, birusik daukan ikusi behar da.
- Ez dira zabaldu behar e-mail ezezagunen bidez heltzen diran artxiboak.
- Ez da artxiborik jaitsi behar leku ez-fidagarritik.
- Edozein artxibo zabaldu baino lehen, antibirusa erabili behar da birusik badaukan ikusteko.

## ZER EGIN BIRUSEN AURKA

Hemen be txertoak edo bakunak erabilten dira. Txerto horreek, lehelengo eta behin, ez dabe itxiten programa infektatua zabaltzen, eta birusik badauka, garbitu egiten dau. Halan be, askotan ezin dira datuak lehenengo moduan ipini. Txerto horri antibirusa deitzen joko.

### Hona hemen antibirusak egiten dituen enpresa onenetariko batzuk:

- PandaSoftware. Bizkaian sortutako enpresa ([www.pandasoftware.es](http://www.pandasoftware.es)).
- Symantec. Norton Antivirus ([www.symantec.com](http://www.symantec.com)).
- F-secure ([www.f-secure.com](http://www.f-secure.com)).
- Kaspersky Labs. AVP ([www.kaspersky.com](http://www.kaspersky.com)).
- Network Associates. McAfee ([www.mcafee.com](http://www.mcafee.com)).
- Trendmicro([www.antivirus.com](http://www.antivirus.com)).

Danak dauke doako antibirus bat, baina gehienek probatzeko baino ez dabe eukiten.

### Helbide interesgarriak:

- <http://www.vsantivirus.com>
- <http://www.virusattack.com.ar/>
- <http://www.securityfocus.com>
- <http://www.zonavirus.com/>
- <http://antivirus.about.com/>
- <http://www.hispasec.com>
- <http://www.virusbtn.com/>

**ZAMUDIOKO ESTANKOA**  
Tabakoak, tinbrea eta opariak

Talferri kalea. 5 ZAMUDIO  
Telefono: 94 452 12 73

**ATARRABI**

Entremetari, 14 48150 Sondika  
Telefono: 944 351 928

**LEKE'S** JATETXEA  
S.L.R.

LEKERIKA BILBAO

San Mamet, 1 48170 ZALAZA  
Telefono: 944 543 894

# LEZAMA GAILUR MENDI



# TALDEAREKIN GOZATUZ!!!

Testua: Arantzazu Mendiguren

Gailur Lezamako mendi taldea 1991ko azaroan sortu zen, mendia oso gogoko duen lagun talde baten eskutik.

Euren helburua mendiaz gozatzea izan zen hasiera-hasieratik. Lagun gutxiko talde bat mendira doanean, ibilbide berdinak egiten ditu beti, ez duelako gehiago eza-gutzen. Gailur mendi taldeak, berriz, toki ezberdinetara joateko eta beste paraje batzuk ezagutzeko aukera eskaintzen du. Ibilbideak edozeinek egiteko modukoak izaten dira eta bazkideen artean berba eginda antolatzen dira.

Bidaiak kotzez egiten dira. Ibilbide bakoitzean 12-14 lagun batzen dira. Bidaia horiek zailtasun mailaren arabera sailka daitezke, baina baita iraupenaren arabera ere: egunekoak, asteburukoak eta "zubietakoak". Egun bateko irteerak Euskal Herriaren barruan egiten dira; gainerakoak, Euskal Herritik kanpora.

Orain arte egin duten ibilbiderik errazena Belatzikietakoa izan zen; egun pasa joan ziren, arrautza eta txorizoeekin gosaria egiteko, baina euria barra-barra botatzen. Arriskutsuena, berriz, iaz egin zen Huescako Pirinioan, Ibón de Estanés deituriko lekuan. Kanpin-dendetan zeudela, sekulako ekaitza eta trumoiak jasan behar izan zituzten. Baina, zorionez, sustoa baino ez zen izan.

Arriskua alde batera utzita, Gailurrekoek GR-11 izeneko ibilbidea dute oso gustuko. Ibilbide horrek Pirinio osoa zeharkatzen du mendebaldetik ekialdera eta urtero-urtero ibilbideko zati bat egiten dute. Aurten Andorran sartuko dira.

Egutegi bat prestatu ohi dute, urtean zelako irteerak egingo dituzten aditzera emateko. Bertan zehazten da zer egingo duten hil bakoitzean. Adibidez, maiatzaren 5an Bizkargira joango dira; maiatzaren 19an eskalada ikastaroa emango dute, eta ekainaren 2an Urbasara joango dira.

Inork Gailur mendi taldeko bazkidea izan gura badu, edo, beste barik, bidaiei buruzko informazioa jaso gura badu, Lezamako Udaletxearen behealdean dauzkaten lokaletara joan daiteke.

Eguaztenetan, iluntzeko zortzi eta erdietatik aurrera biltzen dira bertan. Dena dela, izen emateak eta horrelakoak geroko utzi gura badira, posible da irteera egunean bertan motxila hartu eta goizeko zortzi eta erdietan Lezamako plazan agertzea. Ziur egon, ahaztu ezinezko esperientzia biziko duela eurekaz.



ZAMUDIO BERRIKO LURLANGILEEN ETXEA  
FOURRIKATUA, AGRIKOLA eta ZANATZETIKO ZAMUDIO BERRI  
HEMENDI BERRI BERRI BERRI  
Santi Mami auzoa, 1  
Tel: 94 454 11 00  
Fax: 94 454 11 11  
Etxe ZAMUDIO BERRI (Kokoa)

**SANTI MAMI**  
ALBAILAKITZA  
Telefonoa 94 454 11 00  
Faxa 94 454 11 11

**EZPALA**

ZARRATU ETA  
EGURREZKO ERAIKUNTZAK  
TRABESEN SALMENTAK

☎ 659 18 68 03 - 670 04 09 07  
(ZAMUDIO)

**GAMINIZ**  
RESTAURANTE

AITOR ELIZEGI

Zamudioko Parke Teknologikoan Tel: 94 431 70 25  
Hazortza 717 E-mail: gaminiz@euskalnet.net  
48101 ZAMUDIO BIZKAIA www.gaminizrestaurant.com

# TRIKITI EGUNA

Holantxe da, eguraldia lagun izan eban Euskal Herriko trikiti egunak eta sekulako jendetza animatu zan Zamudioraino etorteko. Euskal Herriko trikitilari eta pandero joleen doinu alaiak, jai giroa bazter guztietara zabaldu eban.



Apirilaren 21ean ikusi genduanetik, Zamudion, Txorierrin eta Euskal Herrian be, trikitixaren etorkizuna oparoa dala eta luzaroko daukagula esan geinke.

Goizean hasita, herrialde guztietatik etozan trikitilariak gure herrietako plazak eta kaleak alaitzen hasi ziran. Halaxe pentsatu eben antolatzaileek.

Zamudio, hainbeste trikitixa eskola egun guztian izateko, ez zala nahikoa eta goizean Txorierriko herri eta auzo guztietara eroan behar zala jaia. Herri bakoitzetarako talde batzuk aukeratu eta han ziren antolakuntzakoak gidari eta lagun egiteko.


Eguerdirako, Zamudioko plazan deitutako kontzentrazioan ziran guztiak. Nork esan dau, gure herriko musika eta kultura atzeraka doala? Hangoa ikusterik besterik ez zan. Txiki-txikienetatik hasita, adin guztietako trikitilari eta pandero joleak euren egunaz gozatzen.

Aurpegi ezagunak ikusteko aukera be izan genduan. Han ziran Joseba Tapia, Aitor Furundarena eta beste hainbat. Ikaragarritzko doinu saltsa, kanta eta musika nahastea. Benetako jai giroa eta ondo pasatzeko gogoia.

Handik kalejiran, 1400 lagunek bazkaltzeko prestatuta egoan karparaino. Kanpoko eguzkiak eta barruko jai giro beroagaz temperaturak gradu batzuk gora egin eban.

Ondo jan eta edan ondoren, Manu Legina, Jose Luis Telleria eta Carlos Roelek gure eskualdeko hainbat erromeri alaitu dabazan trikiti beterano hirukoteak omenaldi hunkigarria jaso eben. Eta baita, "Bertoko" musika eskolako irakasleak.



 **HACKERS**  
CIBER

- ON LINE JOKUAK
- CHAT-AN
- WEB ORRIALDEAK

MIKEL ZARATE 3 ICORREDO AURREANI SONDIA  
TIFONO: 94 453 75 78

**GARRAIOLARIA** 

Miguel Angel Lokua:

Andra M<sup>o</sup>, 191  
LARRABETZU  
Tifoa. 94 155 80 20

**VIDEO-CLUB EL TRASGU** 

- DVD
- VHS
- PLAY STATION
- JOKOAK
- OPARI SALMENTAR

Iturrigana, 1 • Tel.: 944 710 156  
48150 SONDIA

# EGUZKIPEAN, TRIKITI DOINU ZAPARRADA ZAMUDION

## Eta inguruko herrietan be bai

*Han ziran  
Joseba Tapia,  
Aitor Furundarena eta  
beste hainbat.  
Ikaragarrizko doinu  
saltsa, kanta eta  
musika nahastea*

Amaitzeko, ENE BADA! Taldearen eskutik dantza egiteko aukera izan zan iluntzera arte.

### Zapatuan bertoko eta "BERTOKO"koentzat

Bezperakoa, jai intimoagoa baina polita izan zan. Protagonistak, Zamudioko BERTOKO Soinu Tresnen Elkarteko neska-mutilak. Helburua, euren beharra herritarrei erakutsi eta hurrengo eguneko giroa berotzen hastea.

Horretarako goizean, antzineko tranbia baten eta beste autobús baten igon eta Txorierriko herri guztietara bisitatxoa egin eben, danatan kalejirak eginez.

Gero taldeko guztien arteko bazkaria, erakustaldia plazan eta eguna bukatzeko merienda eta erromeria.

### Eskerrik asko

Bai, eskerrak emon behar deutseguz BERTOKO taldeko antolatzaileei Zamudio eta Txorierritar guztioi eskeini deuskuen egun handiagaitik.

Antolaketa lan astunak eta azken asteotako buruko minak ez dira alferrikakoak izan. Hor dago fruitua. Aupa BERTOKO, ekin eta eutsi goiari!!!



LIBURUDEN DA PAPERUDEN DA  
**ZAMUDIO**

Tartas kalea, 5  
Telefono / Fax: 94 462 29 10 - 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

**LEJARRENE  
JATETXEA**

GARAIOLTZA, 102 - TEL: 455 65 46  
LEZAMA (BIZKAIA)

**OKINDEGIA - DASTALEKUA**

Aretxalde, 64  
Ieft.: 94 455 50 36 48196 11 /AMA

# Sukaldaritza

## ETXEKO SUKALDARITZA

Mari Tere Oinandia

### INDABA GORRIE

#### Osagaiak (4 pertsonarentzat)

- 1 kg. Indaba gorrie
- 100 . urdaia
- Txorizo bi
- Piper txorizero bi
- Porru bat
- Kinpula bat
- Zanahori bat
- Patata bat


Lehenengo eta behin bezperan indabak garbitu eta uretan ipini beratzen.

Ur berarekin, indabak egosten ipini txorizoa eta urdaia. Irikiten hasten danean, porrue, kinpula herida eta zanahoria txiki-txiki eginda bota eta piper txorizero biek osorik. Ordu bete erikiten egon eta gero patata bota zatituta eta sarten baten 4 edo 5 koi-larakada oliba olio ipini eta beste kinpula erdia, hau ere txiki-txiki eginda. Kinpula frijizten denean bota indabatara. Azkenean gatza egin.

Ur behiago behar izanez gero, ur hotza bota .

Irikiten ordu bitan eduki, gitxi gora behera.

Osagai gehiago be hartzen ditu indaba lapikoak: odolosteak, saiheskia, txorizoa. Holan ura izanez gero honek osagaiok aparte egosi eta indabakaz batera jan.



LEJARRENE JATETXEA

Ricardo Zarate Lejarraga

### Pastazko zinten entsalada

Osagaiak (4 lagunentzat)

Pastazko zinta kilo bat  
Antxoa lata bat  
Olibak (beltzak edo antxoa nahiz pipe-  
rrarekin beteak izan daitezke)  
Letxuga orri batzuk  
Piper gorri batzuk  
Hirugiharre (panceta) xerra batzuk

Prestatzeko modua

Lehenengo eta behin, zintak egosiko ditugu ur ugaritan. Bertara gatz apur bat eta olio txorrotada bat botako ditugu. Egosita daudenean, ur hotzetan ipiniko ditugu, guztiz hoztu barik.

Antxoak, olibak eta hirugiharrea txikitu-  
ko ditugu eta albo batean utziko ditugu.  
Letxuga juliana erara (zati txikiak eta  
luzeak eginez) zatitu eta albo batean  
utziko dugu.

Zartagin batean olioia eta berakatzu  
jarriko ditugu berotzen. Olioia epel dago-  
enean, hirugiharrea bota eta guztiz frijitu  
baino lehen aterako dugu zartaginetik  
(berakatzak gustua emateko baino ez  
dira).

Hirugiharrea frijitzeko erabili dugun  
olioa (gutziz erreta ez badago) entsala-  
daren ozpin-olioa edo binagreta egiteko  
erabiliko dugu, iragazi ondoren.

Aurkezteko modua

Plateraren azpian letxuga ipiniko dugu.  
Gaietan, pastazko zintak ipiniko ditugu  
ozpin-olioarekin, olibekin, antxoekin eta  
hirugiharrekin nahasturik. Horren gai-  
nean, antxoa batzuk eta piper gorri zati  
batzuk jarriko ditugu trabesean. Nahi  
izanez gero, arrautza egosi zati batzuk  
edo kaparrondoak ere jarri daitezke.  
Azkenik, perrexil apur bat zabalduko  
dugu dugu gainetik.



BIRITXI

Peluquería y Estética

Ponretiko, 6  
48170 ZAMUDIO

Tel: 94 403 72 80  
94 403 72 82



SUNDIAZ TERROA  
KURULTAKO ZARRAKA  
1919 UK

Nacho & Aitziber  
Birtinaga

Ponretiko, 6  
48170 ZAMUDIO

Teléfono: 94 403 72 81

BEIZIKURI  
DUCILER  
ESTILIA  
EUBENENI  
KAZIBI  
ROSA TEREZAZ UGARTE  
CICALIS VIRA ESTE  
SUPATIBOAK NTA MINDIBAK  
NANBOLUNDA NIBIEN  
BILIBOAK  
ZUKLAK  
DIP. MINDIBAK



Ugaldeguren II Ind. 7-2 - Tlxoa: 944 521 590 - Faxa: 944 523 000  
48170 ZAMUDIO

en colaboración con el Ayuntamiento de Zamudio

## LIBURUAK

### Lagun Izoztua

*Joseba Sarrionandia*

Oroimena eta hitza galdu ditu Goio, "izoztuta" geratu da Bluefieldsgo bere erbestean, eta hari laguntzera doa Maribel, errefuxiatuen postaria; Ekuadorrera eraman nahiko du sendatzera, han bizi baita paper faltsuekin Andoni, Goioren ikaskide izandakoa, baina bidaia ez da inondik ere erraza.

Abiapuntu horrekin, hiru narrazio-hari josten dira kontrapuntuan.

### Galtzerdi suizida

*Landa, Mariasun*

*Olariaga, Antton*

Fikziozko kontakizuna izan arren, gizakion eguneroko errealitatea islatzen du obra honek. Galtzerdi ausart batek lehenengo pertsona kontaktuko digu bere burua laugarren solairutik bota zuenetik maitasunaren kilimak sentitu zituen unerainoko gorabehera guztiak. Eta ezin da aipatu gabe utzi Antton Olariagak liburu honetan egindako lana. Mariasunen testuari etxe eder bat egin dio arkitekto handi honek.

## DISKOAK

### "Gaua basamortuan"

*Markos Unzeta*

Markos Unzeta eibartar musikariak pop-rock doinuak eta giro akustikoa aurkezten deuskuz.

### "Ez esan inori"

*Asier Serrano*

Asier Serranok bere bakarkako lehen diskoa aurkeztu du, "Ez esan inori". Lorelei taldean ezagutu genuen musikariak bakarkako bideari ekin dio eta hainbat lagunen kolaborazio izan ditu disko honetan.

Diskoaren zuzeneko aurkezpenak Euskal Herriko txoko askotan izango ditugu. Gastelupeko Hotsak disketxearen eskutik ezagutuko dugu lan berri hau.

# DENBORA PASA

## 6 ezberdintasunak

Irudi bien artean aurkitu 6 ezberdintasun. Zein da Zamudioko benetako Artea Errota?



## UMOREA

### Ezin edan

Badoa gizon bat medikunera, eskuan itzelezko dardara daukala, eta...

— Doktore jauna, begira, azken bolada honetan eskuan kriston dardara daukat, eta ez dakit zergatik ote den. Eta medikuak esaten dio:

— Asko edaten duzu?

— Asko zelan edango dut ba? Erdia jausi egiten zait eta!

## ESAERA ZAHARRA

### OTSOAK ERE EZ DU BERE HARAGIRIK JATEN

Inor ez da bere buruaren etsai; alegia, inork ez dio bere buruari harririk botatzeko.

# AGENDA

## Zamudio

-Maiatzean, hankapaluen tailerra. Zamudioko Gazte Asanbladak antolatuta.

-Maiatzak 3-17. "Antzerkiaren mundua" erakusketa. Dorretxea.

-Maiatzak 4. 20:00etan, "Faemino y Cansado" humorea. Arriaga antzokian. Busez.

-Herri Urrats eta Araba euskaraz-era joateko autobusak antolatu ditu Udalak. Prezioa 5 euro dira eta izen ematea Udaletxean bertan edo 94 452 20 23 telefonoan.

-Maiatzak 17, 24, 31, ekainak 7. 19:30 eta 21:00etan, Bideo emanaldiak.

-Maiatzak 19. Marrazki lehiaketa. Zamudioko frontoian. 17:00etan.

-Maiatzak 31. 20:30etan, Abesbatzen musikaldia, Zamudioko elizan.

-Ekainak 2. Euskal Eskola publikoaren festara joateko autobusak antolatu ditu Udalak. Prezioa 5.

-Maiatzak 25. 22:00etan, Benito Lertxundik emanaldia eskeiniko du Lagatzuren Euskal Astean.

*Derio. San Isidro Jaiak.*

*Egitaraua 5. orrialdean.*

## Sondika

- Maiatzak 2-15, Melina López Sanabriaren pintura eta grabatu erakusketa. Liburutegian.

- Maiatzak 16-31. Jon Deuna jaietarako aurkeztutako kartelen erakusketa. Liburutegian.

- Maiatzak 31. 17:30etan, "Zergaitik, zergaitik, zergaitik" ume-entzako antzerkia, "Txirristra" taldearen eskutik.

- Maiatzak 4, 11, 18 eta 25. 11:00-13:00. Jota ikastaroa, Jisturi kultur elkartearen eskutik, Kultur aretoan. Doan.

- Ekainaren 2an. 11:00etan, Derio-Zamudio lasterketa. Derioko eskolan.

## Loiu

- Ekainaren 23ra arte. Tenis ikastaroak. 18 \_ , Loiu erroldatu-takoentzat; 36 \_ , besteentzat.

## Larrabetzu

- San Isidro Jaiak. Eskupilota partiduak.

- Ganadu azoka. Maiatzak 15. San Isidro Jaiak.

## Lezama

- Maiatzak 12. Herri Urrats-era joateko autobusak antolatu ditu Udaletxeak.

- Maiatzak 26. Ismael Serranoren kontzertua.

- Maiatzak 25. Fruten meazketari, inausketa berdeari eta fruta arboletako plaga eta gaixotasunei buruzko ikastaroa.

- Ekainak 2. Euskal Eskola publikoaren festara joateko autobusak antolatu ditu Udaletxeak. Irteera 9:30etan.



Benito Lertxundi Zamudion, Lagatzuren Euskal Astean

**OPTIKA IKUSLAN**

Betnurreko graduatunak  
Kontaktu lentakak  
Fotokinko betnurrekunak  
Lodisuzko maskak.

Ouz kalera, 3. aldea. 94 452 28 18 ZAMUDIO

**ARTIZAR**  
MARKDA JARTZEKO TAILERRA

Justin Ajarin, 7  
Tfn. 94 453 01 50

48150 SONDIKA  
Bizkaia

**LAPIKO/S.L.**  
Enluzerentzako materialak - Enluzerentzako  
(LULIUM)

Garalotza, 07  
94 452 65 11

OSTUR IZABARRA  
BIZKAIAN

**HORTZ - KLINIKA**

*Jasone Azurmendi Garai*

Palacio Plaza, 1 - 1º A  
ULKIU

Telefonoak 944 545 705

**C.D. HIPICO  
LOS AMIGOS DEL CABALLO  
DE LEZAMA**

Garalotza, 184 - Tel 94 455 65 11  
LEZAMA (Bizkaia)

C.I.F. G95056107

**IBILALDIAK ZALDIZ  
APOPILOTZA  
MAILA GUZTITAKO IKASTAROAK  
HITZORDUA AURRETIK**

# DERIOKO JAIAK

## GORA SAN ISIDRO!!!

### M<sup>o</sup> Bel TZAKARTERI URDAITEGIA

ESPEZIALITATEA IBERIKOETAN

Mikel Deuna, 7  
Tlfnoa: 94 454 52 94  
DERIO



*Estankoa  
eta  
Opariak  
Perea*



9 Bederatzen  
4 lan  
1 lau  
5 bust  
4 lan  
0 zuzen  
7 zuzen  
6 sei  
9 bederatzen

gorbea, 6 - 48160 derio

### DERIOKO JAIETAN LAINOMENDI TALDEA



MAIATZAREN 11<sup>o</sup>  
Arratsaldeko 7:30etan  
UDALETXERO ENPARANTZAN  
Dantza erakustaldia

CENTRO MASAJE

**LASAI**



Terapiak:

- Ultrasonidos (Electroterapia)
- Movilizaciones
- Desejarps
- Masaje
- Gimnasia conectiva

Clinica especializada en:

- Clin. de seguros (Accidentes)
- Empresas de la zona
- Clubs deportivos
- Particulares

C/ Sotillo, 11 Derio  
48160 (15 minutos de Derio)  
Tlf: 94 454 10 28  
Móvil: 635 74 24 85  
Fax: 94 454 10 28

Detail: L. ARTEGANO@wanadoo.es

### DERIO FRUTADENDA



Sollube, 8  
Tfnoa: 605 77 12 62  
DERIO

# Giber DERIO

MUNGIALDE, 11 - MUNGIAIRA BIDLA

☎ 94 454 07 01

ETORRI INDUSTRIAL. ES ZARA DAMUTUKO!



### AVELINO ARRANDEGIA

ONDO PASA JAIETAN

Mikel Deuna kalea - Tfnoa: 94 454 11 19  
Gorbea, 4 - Tfnoa: 666 66 36 09  
DERIO



MODA  
INFANTIL

## Tximeleta

Gernikako Arbola, 8  
Telefonoa: 94 454 14 35  
Faxa: 94 454 38 26

48160 DERIO  
Bizkaia



Abertza los 7 días de la semana

- Eguneko Menuak
- Kazolabxoak
- Oilaskoa Eretza
- Karla Zatsela


Umbe Kalea, 1 Baxo - DERIO  
Tfno. 944 540 106



ra  
sortzen dugu



kultu



Sormena buztalzen dugu eta zure eskuelari jarlzen ditugu oira  
paregabeak, berriak eta klasikoak, behar-beharrezkoak.  
Sortzailearen eskuetatik zure eskuetara.

Artea, pentsamendua eta musika guztiontzat. Mundu irakia.  
Hau da gure kultura.